

Aurten ere, Gorbeialdeko bost ikastetxetan aritu gara bertsoan

Iñaki Viñaspre aritu da kurtso honetan zehar **GU ERE BERTSOTAN** programa lantzen gure eskualdeko bosgarren eta sei-garren mailatan. Bertsoak ezagutzeko, egiteko, moldatzeko... aukera izateaz gain, aitzakia ederra izan da hizkuntzarekin jolasteko. Oso balorazio positiboak jaso ditugu ikasle, guraso zein irakasleengandik.

Ikastetxe, Kuadrilla eta eus-kara elkarrean babesa jaso du proiektu honek.

GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren Curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK.**



Bertsoa jolas modura: BERTSO ESKOLAK

ARAMAIO

GAZTEEN TALDEA (15-17 urte): Asteleheneretan. Ordutegia: 18:00-19:00. Irakasle: Xabi Igoa

HAURREN TALDEA (10-12 urte): Asteartetan Ordutegia: 17:30-18:30. Irakasle: Paula Amilburu

LEGUTIO

GAZTEEN TALDEA (16-18 urte): Asteleheneretan. Ordutegia: 17:30-18:30. Irakasle: Oihane Perea

HAURRAK (10-12 urte): Asteazkenetan. Ordutegia: 16:30-17:30. Irakasle: Iñaki Lertxundi

URKABUSTAIZ

HELDUEN TALDEA: Izarran, asteleheneretan. Ordutegia: 20:30-22:00. Irakasle: Abel Enbeita

GAZTEEN TALDEA: Izarran, asteleheneretan. Ordutegia: 18:00-19:30. Irakasle: Iñaki Viñaspre



MURGIA

GAZTETXOEN TALDEA (15-16 urte): Asteazkenetan. Ordutegia: 15:30-16:30. Irakasle: Uxue Diaz de Cerio

ZIGOITIA

HELDUEN TALDEA: Zigoitiako kultur etxean, asteartetan 20:00-21:30. Irakasle: Iñaki Viñaspre

Gorbeialdeko umeen TOPAKETA

Urteroko ohitura bihurtu da Gorbeialdeako Topaketa. Aurten bost ikastetxeetako hurrek parte hartu izan dute. Murgiaiko frontoia izan zen aukeratutako lekua. Goizean jolaserako aukera eduki zuten umeek: elkar ezagutu, lehen izerdiak bota elkarrekin, gorputza nekatu..... Bazkalostean, behin indarrak berreskuratuta, bertsoen txanda iritsi zen.

Ederki gozatu genituen batzuen zein besteen lana. Urtean zehar landutako eta sortutako bertsoak besteei erakusteko, festa giro ederra sortu genuen frontoian.

Bertsoak bota eta etxera itzultzeko ordua heldu zen, baina hurrengo urtean,


BERRIZ ELKARTUKO GARA!



KUADRILLARTEKOA

Kuadrillartekoa berri eta berritzaile iritsi zen aurtengoan gurera. Hasteko, lehiarik gabe egin dugu, elkartzea badelako nahikoa aitzakia. Bestetik, norekin, non, zenbat saio... taldeen esku zegoelako.

Parte hartze handia izan du eta dugu, Gorbeialdeko lau talde (Urkabustaiz, Bostibaieta bertsoan Legutio, Aramaioko Garratzak eta Unibertsolariak) aritu baitira bat bateko saioetan eta idatzizko bi (Urkabustaiz gazte asanblada eta Legutioko bertso eskola). Sei saio egon dira guztira gure eskualdean.



Kuadrillartekoa azken festa egunean ere, presente izan ziren talde hauek. Giro ederrean aritu ziren bertaratuak, poteoan, dantzan, bertsoan... Agurain bertsoz, koadrila arteko giroz, musikaz, dantzaz... bete genuen. Eta guzti hori lehiatu gabe.

Aho zapore izugarri ona utzi digu aurtengoak,

ea laster datorren hurrengoak!!

SAIOAK lagin txiki bat

Gorbealdean burututako saio batzuk dituzu hemen:

- 2013/09/15: Zigoitia euskaraz, Mairulegorretan M. Amuriza eta U. Alberdi
- 2013/11/13 Euskal Herriko Bertsolari txapelketa, Murgian
- 2013/12/27 Jaialdia, Aramaion X.Silveira, A.Arzállus, U.Iturriaga eta P.Amilburu
- 2014/01/17 Jaialdia, Legution M. Sarasua, S.Colina, R.Santxez eta A.Arzállus
- 2014/05/17 Tximela kapitainaren izarrak, Ondategin J.Tapia
- 2014/06/07 Poteoa, Izarran X.Igoa, O.Enbeita eta Z.Enbeita



Saio hauetaz gain, asko geratzen zaizkigu gozatzeko.

Adi egon! Ez itzazu galdu!

Eskolartekoa: festa handia!

Maiatzaren 31n ospatu genuen Eskolartekoa. Azken urteetan ohi bezala, Legutioko Kultur etxeko aretoa eta frontoia izan ziren hautatutako tokia.

Bertso sortek ireki zuten goizeko Legutioko kultur etxean hasi zen bertso festa. Aramaioko bertso-eskolako txikiak izan ziren lehenak oholtzara igotzen eta ederki piztu zuten giroa umorez betetako bertso-sorta antologiko baten bidez. Horien ondotik Aguraingo bertso-eskolako haurrek Eskorbutoren doinuak oholtzara igo zituzten entzule guztiak kantuz jartzea lortu zutelarik. Azken bertso-sorta Murgiako bertso-eskolako gazteena izan zen, eta bertsolari eta perkusiolari bikainak direla erakutsiz ondoren bat-batean aritu behar zuten 6 gazteak zirikatze aukera ez zuten alperrik galdu.

Irribarrea ahoan oholtzaratu ziren beraz Maria Fuentes, Markel Yoller, Egoitz Iradier, Peru Abarrategi, Maddalen Arrausi eta Unai Argote. Irribarrez baina bertsotan euren onena emateko prest. Zortziko nagusian zein txikian saio arinak eta umore ukitu ederrekin eskaini zizkiguten. 60 entzuleren aurrean, saio orekatua eta bizia osatu zuten ofizioki. Ondoren bakarkakoen txanda iritsi zen, puntuari erantzun eta gaiari bi bertso bota beharra. Hasiera batean lan nekeza iruditu arren, entzulek gogoz txalotu zuten sei bertsolarien ahalegina eta ale ederrak entzuteko parada izan zuten bertaratu-tako guztiek. Saioa bukatzean jakin genuen Peru Abarrategik (txapeladun) eta Maddalen Arrausik (ordezkatuko gaituztela EHko eskolartekoan

Bat-bateko saioa amaituta eguraldi eskasari irribarre eginez, kalejiran abiatu ziren haur, gazte eta gurasoak kalean barna. Alboka, pandero eta puntuatu gabeko bertsoek hartu zuten kalea. eta 15:00etan Kiroldegiaren aterpean herri bazkari goxoa izan zuten eskerroneko sari. Bazkalostean herri olinpiadak burutu zituzten, tentsioak alde batera utzita, bertso-eskola guztiak nahastuta, egunari amaiera bikaina emanaz.

GORBEIALDEA BERTSOTAN-2013/2014



Zatoz Arabako bertsolariak animatzera Euskal Herriko Eskolarteko txapelketara!!

Orion Ekainaren 21ean izango da

Urtea IRUDItan



Eskolarteko txapelketako irudi batzuk dituzue hemen. Arabako Bertsozale Elkarteak Legutition ospatzen den finalean ateratakoak.



Zenbat saio mota ezberdin gozatu ditugun, e?



Kuadrillartekoko bat bateko taldeak



Arabako Bertsozale Elkartea
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com

www.bertsozale.com/araba
www.bertsoa.com



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net



KULTURA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA